

Kooperatibismoaren mito berriak pentsatzen

«Kooperatibismoa sozialismoa da», eta, *Gizabere kooperatiboaz* liburua-
ren hitzurre bikainean Joxe Azurmendik berak azaltzen duen mo-
duan, kooperatibistek beren burua izendatzeko asmatu zuten ‘sozia-
lista’ berba. Aipu hori lelo bezala erabili izan dut, asmo probokatzailerik
pixka batekin, kooperatibismo eraldatzailearen izaera mahai gainean
jartzeko mito moduan, praktikatik lantzen gabiltzan ardatzak Joxek
hitzaurreko testuan ederki azaltzen dituelarik:

Proiektu horietan guztietan kapitalismoaren gainditzea bilatzen
da, edo eraldatzea, edo gutxienez lana eta produkzioa gizatiar-
tzea: enpresako autogestioa, lankideen demokrazia ekonomikoa.
Sozialismoaren tradizio klasikoan beti (gehi ekologia, feminismoa,
elementu berriagoak).

Kooperatibismo klasikoa eta eraldatzailea batzen dira esaldi horretan;
izan ere, zorionez, kooperatibismoak pentsamendu ildo berriekin el-
karrizketa irekitzeko eta garatzeko aukera eman digu praktikan ga-
biltzanoi, eta, ildo berriei antirrazismoa eta pentsamendu dekoloniala
gehituta, zertan gabiltzan hobeto ulertzeko aukera ematen du. Lelo
izan daitekeen esalditik harago, modu kooperatiboan pentsatzeko eta
ekiteko bidea eman digu Joxek, eta horregatik uste dut gure koope-
ratiben estatutuen xedeetan aurkituko dugula, modu oso ederrean,
haren pentsamendua etorkizunean ere.

Demokratak eta biolentoak lanak nerabezaroan politikoki Euskal Herrian
kokatu ninduenetik izan dut pentsamendu erreferente Joxe, haren
lan asko nahi baino denbora gutxiagorekin irakurri baditut ere. Or-
dutik, garapen pertsonal eta komunitarioko momentu gakoetan aur-
kitu dut haren pentsamendua, eta laguntza handia izan da koopera-
tibismoaren egunerokoa lurreratu eta etorkizuna lantzeko. Bidean,
El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendi eta aipatu dudak
Gizabere kooperatiboaz lanak, alde batetik, eta 2019an egin zen *Euskal*

pentsamenduaren ur-jauzia. Joxe Azurmendi Kongresua, bestetik, mugariak izan dira nire pentsamendu kooperatiboa osatzeko. Liburuak, kooperatibismoaren oinarri filosofiko eta politikoa eman didatelako; eta kongresua, Joxeren ikuspegi kooperatibista oinarri, etorkizunera begira jarri ninduelako, aurkeztu nuen ‘Bizitza eta lurralde kooperatiboak 2034. urtean. Aurrerapen bat *pertsona* eta *enpresa kooperatiboa* osatzeko asmoz’ proposamenarekin. Hortik jarraitutako bidearekin osatu nahi dut aitortza testu hau.

Pentsatzeko, ekitea ezinbestekoa da, eta horrela egiten dugu euskal kooperatibismo eraldatzailean gabiltzanok, proiektugintzatik pentsamendu arlo ezberdinekin elkarriketa sortuz. Horregatik, egunero koaren lanketan, oso presente dauzkut Joxek landutako hiru eremu: subjektu kooperatiboa, komunitate interdependentea eta modernitateak eragindako zapalkuntzetatik askatu beharra. Hiru ardatz horien arteko loturekin eman nahi dut datozen urteetan irakurketak eta pentsamendua garatzeko denbora.

Ekintzan, Mikel Urdangarin Irastorzak proposatutako elkarriketen ildoari eutsiz, gizabere*txo* kooperatibo komunitarioa sortu eta lotzeko praktikak gauzatuko ditugu. Bizitzaren eta gorputzen zaurgarritasunetik, erantzukizunez, tresna kooperatiboekin, komunitate emantzipatzaileak garatzeko, eta komunitate horietatik pertsona kooperatibo komunitario berriak sortzeko. Hori da askok egin dugun bidea, eta eraiki behar dugun ziklo materiala.

«Kooperatibista izatea munduan egoteko modu oso bat eta mundu osoaren aurrean erantzukizuna izatea da»; beraz, konpromiso pertsonal eta kolektibotik lan egitea proposatzen dut, mundu-sistema ikuspegi eraldatzaile batetik, denontzat lan desiragarriak eta bizitza biziagarriak izateko baldintzak sortuz, kooperatibismoa den utopia apala indartuz eta, praktikatik, jarraituko duen krisian bizitzeko mito berriak pentsatuz.